

(II)

GANIX IGELA

Basusarri-Pupurraeneko

Ganix ez zen, ez, bera igel-jale amorratua. Bainan ohartu baitzen Baionan ederki saltzen zela igela, pentsatu zuen balio zuela igel-arrantzian ibiltzea, Baioneseri saltzeko.

Igande goiz batez **Xurrumilatx** erraiten dioten aintzira hartarat Ganix joan zen igel-keta. Lau orenetan hasirik hamarrak irian bazituen hamabotz dotzena bere zarean bildurik.

Elizatik dan, dan, dan, meza nausiko danga.

—Debrintxoa, mugia nadin hemendik...

Erran behar dautzuet, Ganix Basusarriko xantrea zela, eta deusestan ez zuela nahiko bere meza nausia huts-egin, ez eta orgatara bat igeletan truk ere.

Xurrumilatxetik etxerat bide puska bat baitzen, ordu zen abia zadin, eta zanpa-zanpa jautsi zen herrira buruz bere zarea bizkarrean.

Plazarat heltzean, ikusten du jendia elizan sartzen. Ja! Ez du Pupurraenerat joaiteko astirik. Alta ba, gogotik etxen pausatuko zuen zarea eta kolpeño bat edanen.

Hanbat gaixto! Hola-hola **Aartzen** da elizan bere zarearekin eta xuen-xuena aldare ondoko bere xantre-lekurat badoa.

Ez zen goizegi heldu. Alabainan jaun erretora, xapa soinean orduan berean jalgi zen sankristiatik beretterrekin **Asperges** emaiteko.

Ganix-ek bere lunetak jauntzi zituen, eta zarea ondo-ondoan, kantari lotu, boza guti edo aski dardaratzu, noizean noiz liburuari behaka.

Meza ere hasi zen, eta Ebanjeliotik landa, jaun erretora predikuari eman. Aditzale hainitz lo zauden, eta ez zen mirakulu Ganix ere loak harturik, lau orenak gabe jaiki-ta.

Ba, bainan lotarik, ez dakit nola, belaun ukaldi batez gure xantreak ion uzkaitzen duen bere zarea dauzkan hamabotz dotzena igelekin.

Zarea uzkailiz, ez dea estalia idekitzen? Ai, ei, orduan igelen besta! Jauzika ateratzen dira beren presondegitik. Zolaren freskuran iduri bide zaiote Xurrumilatx-en direla. Ari dira hunat salto, harat salto, eta bozkarioz kantu ere egiten dute: **koakz...koak, koakz!**

34 EGON. Indicatif = Present

Ni nago = je reste

Hi hago = tu restes

Zu zaude = vous restez

Hura dago = {

Gu gaude = {

Zuek zaudezte = {

Hek daude = etc

Imparfait

nindagon = je restais

hindagon

zinaduden

zagon

ginanden

zinadezten

zauden

1. Zer da igela? Nun begi da?
2. Ganix moratzoan igel arraunzarat. Zorbat atxean?
- 3.. Arraintzatik landa nun ezarri zituen igelak. Zituen Zestako!

(III) ADITZ IKASKUNTZA

- | | |
|--------------|----------------|
| 31. dauzuet. | 32. abiazadin. |
| 33. badoa. | 34. lo zauden. |
| 35. dakit. | 36. dauzkan. |

31. UKAN - Conj. à double cpl. Indic. Présent.

Zueri = à vous.	Objet sing.	Cpl. indir. pluriel
Nik dauzuet	= je vous l'ai	Conj. periph
Harek dawzne	= il vous l'a	Emaitzen dauzne
Guk dawznegu	= nous vous l'avons	je vous le donne
Heiek dawzne	= ils vous l'ont	

Objet pluriel. Cpl. indir. pluriel

Nik dawzikzuet	= je vous les ai	Conj. periph cpl. sing
Harek dawzikzue	= il vous les a	Emaitzen dawzikzue
Guk dawzikzuegu	= nous vous les avons	je vous les donne
Heiek dawzikzue	= ils vous les on	

32. EZAN. Subjonctif Imparfait.

Ni uzan mindadin = que je fusse

Hi " hindadin = que tu fusses

Zu " zinterzen = que vous fussiez

Hura " zadin = que il fut

Gu " ginterzen = que nous fussions

Zuek " zinterzen = que vous fussiez

Hek " zitezen = que ils furent

33. JOAN. Indic. Présent

Ni noa = je vais

Hi hoo = tu vas

Zu zoatzi = allez

Hura doa = {

Gu goaži = {

Zuek zoazte = {

Hek doatzi = etc.

Imparfait

nindoan = j'allais

hindooan = {

zinootzin = {

zoan = {

ginaotzin = {

zinooazten = {

zoootzin = etc.